# Resolución Nº48 de 20/03/2026

Documento firmado electrónicamente.

Arantzako Udaleko alkatea / Alcalde del Ayuntamiento de Arantza
SATURNINO LARRALDE IBARROLA
20/03/2026

Arantzako Udaleko idazkaria
NAGORE MADARIAGA IRIARTE
20/03/2026

**CIMA 60 AS 40 BATERAKO PARTEHARTZEARI ESLEITURIKO ARANTZAKO ERABILERA ANITZETAKO APARKALEKU BERRIA EGITEKO PROIEKTUA IDAZTEKO ZERBITZU KONTRATUA LUZATZEA ONESTEA.**

Ikusirik urriaren 17ko 160/2025 Alkate Ebazpenaren bidez, Arantzan erabilera anitzeko aparkaleku berria egiteko proiektua idazteko zerbitzu kontratuaren lizitazioa eta plegu arautzailea onartu zirela.

Ikusirik azaroaren 21eko 190/2025 Alkate Ebazpen bidez, Arantzan erabilera anitzetako aparkaleku berria egiteko proiektua idazteko zerbitzu kontratua CIMA 60 AS 40 baterako partehartzeari esleitu zitzaiola; izan ere, hura izan zen puntuazio onena lortu zuen lizitatzailea.

Ikusirik 2025eko abenduaren 17an aipaturiko zerbitzu kontratua formalizatu zela. Ondorioz, plegu arautzaileko 5 klausulan xedaturikoaren arabera, 3 hilabeteko exekuzio epea orduan hasi zen. Horrela bada, proiektua martxoaren 17rako akituta eta aurkeztuta egon beharko luke.

Ikusirik 2026ko otsailaren 27an esleipendunak ohartarazi duela, geologoari azterketa geoteknikoa egiteko eskatu zitzaiola. Halaber, duela guti arte izandako euriengatik honek ezin izan du egin landa lana, zentzuk hurren egunetan eginen dituen. Azterketa hori beharrezkoa dute proiektua zehaztasunez idazteko. Horregatik guziagatik, 15 eguneko epe luzapena eskatzen dute.

Ikusirik aztergai dugun eskuhartzeak EH Bilduko emendakin bidez Nafarroako Gobernuko Lurralde Kohesiorako Departamentuko dirulaguntza jasoko duela, zeinean zehazten duen eskuhartzea egin eta justifikatzeko epea martxoaren 16an akituko dela. Halaber, zuzeneko dirulaguntza arautzen duen hitzarmenaren 11 klausulan justifikazio epea luzatzeko aukeren nondik norakoak adierazten ditu. Horrela bada, esleipendunaren ohartarazpena kontutan hartuta, 2026ko otsailaren 27an justifikazio epea luzatzeko eskaera egin zitzaion Nafarroako Gobernuko Lurralde Kohesiorako Departamentuari eta honek, Toki Administrazioaren eta Despopulazioaren zuzendaritza nagusiaren martxoaren 16ko 81E/2026 Ebazpen bidez justifikazio epearen luzapena onartu du.

***APROBACIÓN DE PRÓRROGA DEL CONTRATO DE SERVICIOS PARA LA REDACCIÓN DEL PROYECTO PARA LA CONSTRUCCIÓN DEL NUEVO APARCAMIENTO DE USOS MÚLTIPLES EN ARANTZA A LA PARTICIPACIÓN CONJUNTA CIMA 60 AS 40.***

*Visto que por Resolución del Alcaldía 160/2025, de 17 de octubre, se aprobó la licitación y el pliego regulador del contrato de servicios para la redacción del proyecto para la construcción de nuevo aparcamiento de usos múltiples en Arantza.*

*Visto que mediante Resolución del Alcaldía 190/2025, de 21 de noviembre, se adjudicó el contrato de servicio para la redacción del proyecto para la construcción de nuevo aparcamiento de usos múltiples en Arantza a la participación conjunta de CIMA 60 AS 40, que fue la licitadora que obtuvo la mejor puntuación.*

*Visto que con fecha 17 de diciembre de 2025 se formalizó el citado contrato de servicios. En consecuencia, de acuerdo con lo dispuesto en la cláusula 5 del pliego regulador, el plazo de ejecución de 3 meses se inició entonces. Por lo tanto, el proyecto debería estar terminado y presentado para el 17 de marzo.*

*Visto que con fecha 27 de febrero de 2026 la adjudicataria ha advertido que se requirió a la geóloga la realización de un estudio geotécnico. No obstante, debido a las lluvias acaecidas hasta hace poco, éste no ha podido realizar el trabajo de campo, que realizará en los próximos días. Este estudio es necesario para la redacción detallada del proyecto. Por todo ello, solicitan una prórroga del plazo de 15 días.*

*Visto que la intervención que nos ocupa va a ser objeto de subvención por parte del Departamento de Cohesión Territorial del Gobierno de Navarra a través de la enmienda de EH Bildu, en la que se especifica que el plazo para realizar y justificar la intervención finalizará el 16 de marzo. Sin embargo, en la cláusula 11 del convenio que regula la subvención directa se indican los términos de la posible ampliación del plazo de justificación. Por ello, teniendo en cuenta la advertencia de la adjudicataria, con fecha 27 de febrero de 2026 se solicitó al Departamento de Cohesión Territorial del Gobierno de Navarra ampliación del plazo de justificación, el cual, mediante Resolución 81E/2026, de 16 de marzo, de la Dirección General de Administración Local y*

# Resolución Nº48 de 20/03/2026

Documento firmado electrónicamente.

Arantzako Udaleko alkatea / Alcalde del Ayuntamiento de Arantza
SATURNINO LARRALDE IBARROLA
20/03/2026

Arantzako Udaleko idazkaria
NAGORE MADARIAGA IRIARTE
20/03/2026

Ikusirik proiektua idazteko zerbitzu kontratuaren plegu arautzaileko 30 klausula eta Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legeko 147.4. artikuluan xedaturikoaren arabera, atzerapena ezin bazaio kontratistari egotzi eta kontratistak bere konpromisoak betetzeko asmoa badu, administrazioak galdutako denboraren pareko luzapena emanen diola, salbu eta kontratistak luzapen txikiagoa eskatu badu.

Ikusirik zerbitzu kontratuaren kontratazio organoa alkatea dela.

**EBATZI DUT:**

1) CIMA 60 AS 40 baterako partehartzeari esleitutako Arantzako Arantzan erabilera anitzeko aparkaleku berria egiteko proiektua idazteko zerbitzu kontratua, inongo penalizaziorik gabe, 15 egunez luzatzea onestea, hau da, 2026ko martxoaren 31a arte. Data horretarako udaletxean proiektu guzia jaso beharko da, plegu arautzaileko 1 eta 34 klausuletan zehazturikoaren arabera, baita dagokion faktura ere (plegu arautzaileko 31 klausula).

2) Ebazpen hau esleipendunari jakinaraztea, bere ezaguera eta ondorioetarako, berariaz ohartaraziz ez dela bertze epe luzapenik onartuko.

*Despoblación, ha concedido la ampliación del plazo de justificación.*

*Visto que la cláusula 30 del pliego regulador del contrato de servicios para la redacción del proyecto y de lo dispuesto en el artículo 147.4 de la Ley Foral 2/2018, de 13 de abril, de Contratos Públicos, si el retraso no fuera imputable al contratista y éste pretendiera cumplir sus compromisos, la Administración concederá una prórroga equivalente al tiempo perdido, salvo que el contratista hubiera solicitado una prórroga menor.*

*Visto que el órgano de contratación del contrato de servicios es el alcalde.*

***RESUELVO:***

*1) Aprobar la prórroga de 15 días, sin penalización alguna, del contrato de servicios para la redacción del proyecto para la construcción de nuevo aparcamiento de usos múltiples en Arantza adjudicado a la participación conjunta CIMA 60 AS 40, hasta el 31 de marzo de 2026. Para esa fecha deberá haberse presentado ante el ayuntamiento proyecto completo, conforme se especifica en las cláusulas 1 y 34 del pliego regulador, así como la factura correspondiente (cláusula 31 del pliego regulador).*

*2) Notificar la presente resolución al adjudicatario para su conocimiento y efectos, con expresa advertencia de que no se admitirá otra ampliación de plazo.*